

FORO NAZIONALA?

Forua (2005.6.4)

Abian da Nazio Eraikuntzarako Biltzarra deritzona, bere misioa, orain arte idatzitako testuan, honela dio: "Euskal Herriak, nazio gisa bizirauteko eta garatzeko ezinbestekoak diren baldintzak zeintzuk diren eta haiek gauzatzeko bideak behin betirako finkatzea". Horra arte euskaldun guztiok ados gaude.

Zer egin nahi du jaio berri den Foro Nazional honek? Talde estrategiatik herri estrategiara pasatzea, Euskal Herriaren errealitatearen diagnostiko amankomuna finkatzea, Diagnostikoan oinarriturik burujabetzaren bidean hartu beharreko neurriak eta bitartekoak adostea, Neurri eta bitartekoen artetik biziraupena eta garapenerako premiazko lehentasunak zehaztea, Prozesu sendoa bultzatu, non eztabaida, ideien alderatzea eta herritarren partehartzea bermatuko den, Bake egoera justu eta iraunkorrerako prozesua trinkotzea.

Hortaz ere euskaldun guztiok ados. Baina eztabaida geldiune honetara helduz gero, hasi dira lehen kontrako ahotsak, puntu honetan hain zuzen ere: Giza eragile, alderdi politiko, sindikatu eta eragile sozialekin lehentasunen inguruko Konpromisoen Hitzarmen Nazionala adostea.

Aralarkoa den Patxi Zabaletak bota egin du lehen harria, baina bere ahotik entzundakoa beste alderdi politiko batzuen pentsamendu berdina islatzen du. Bere hitzetan: «Nazio Eraikuntzarako Biltzarrean ez dugu sinesten. Uste dugu eragile politikoek beren bideak eginak dituztela, eta indar politikoetatik at ezin dela egitura nazional bat sortzen hasteko ametsa gauzatu, ezinezkoa da». Alderdi politikoak osotua ez izateagatik Foro Nazionala ez duela inor ordezkutzen, ez duela legitimitaterik beraz, eta ez duela politikoki funtzionalitaterik gehitzen du Zabaletak.

Zabaleta bezalako euskaldunentzat legitimitatea alderdi politikoak dituzte. Zabaletak bere buruari galdetu beharko liokeena da ea alderdi politiko horiei legitimitatea nori ematen dien. Izan ere, Espainolen eta frantsesen legeak ematen baitie hain zuzen legitimitatea Aralar bezalako partiduei, beraz gu konkistatu eta menpean gaituztenengandik jasotzen dute, eta haiek emaniko instituzioetan eta eurek jarritako mugetan dute legitimitatea. Baina Euskal Herriaren askatasuna muga horietatik kanpo dago erabat, beraz, Euskal Herria askatzeko legitimitatea ezinda etorri Espainia eta Frantziako legeengandik legitimitatuak dauden inolako erakundeengandik: ez inposaketa horretan oinarritzen diren alderdi politikoengandik, ez Gobernu Autonomiko espainolengandik, ezta espainiar eta frantziarren legeen, era ezberdineko manipulazio, mugapeen eta legitimitatean bozkatutako udaletxeengandik.

Frantsesen eta Espainolen "legitimitatea", euskal lurrean bakarra da: armada, gure herriaren kontra eragiten duten biolentzia armatuarena; ez dago nahita espainola edo frantsesa den

euskaldunik, momentu horretan bertan euskaldun izateari uko egiten baitu, Estatu bi horiek ez baitute euren barnean espainol edo frantses ez denik onartzen. Hortaz, alderdi politiko guztiak espainolak edo frantsesak dira, euskal Estaturik ez baitago, euskaldunak gure askatasuna lortu arte edo gure borondatez espainolen eta frantsesen "legimitatea" onartu arte (euskaldun izateari uko egin eta gure menperatzaileen nazionalitatea geureganatuz), biolentzia armatu horretatik sortutako alderdi politiko, erakunde eta abarrek, espainolak eta frantsesak dira eta euren "legimitatea" edo biolentzia armatua gure herriaren kontra ontzat ematen dute. Askatasuna lortzeko menperatzaileen erakundeetan parte hartu behar dutela bere horretan dauden euskaldun guztiei, datu bat bakarrik mahai gainera ekarriko nie: euskal esparru zatikatuan soilik mugitzen diren alderdi politiko guztietan zaharrena dena, 108 urtetan, estatutu bat ere ez du lortu, esanguratsua guztiz. Utopikoa da sistema barrutik aldatu nahi izate horrek (Lutero ere eliza katolikoaren ustelkeria salatzean eskumikatua izan zen), sistema bera da azkenean zu asimilatuz indartzen dena, hortik kanpo euskal organismoak sortzea oso saila bezain erabat beharrezkoa da, zelan lortu gure inteligentziari botatako erronka handiena da.

Menperatzaileen sistemak asimilatutako partidu, sindikatu edo erakundepetik ez da ezer onik sortuko euskaldunentzako, euskaldunok eragile politiko berriak behar ditugu eraiki hortaz eta Foro hau ezin da izan menpekoen inposaketan parte hartzeko eztabaida gune. Foro baten beharra dugu euskaldunok, gure legimitatea duena eta ez menperatzaileak emanikoa. Zertarako behar dugu Foro hori argi eduki beharrezkoa da. Martxan den Nazio Eraikuntzarako Biltzarrean honela adierazten da: nazio eraikuntzaren ekintza plana eta gatazkaren konponbiderako proposamena.

Puntu horietan datza hain zuzen ere Foro honen akatsik handiena. Euskaldunok ez dugu naziorik sortu edo egituratu behar, aspaldi nazio bat garelako guztiz egituratua. Testuan aurrera joanda, "Nazio" hitzaren desegokitasuna nabaritzen da eta analisiaren balio eza leku guztietan islatzen da. "Nazio Eraikuntza" beharra puntu hauetan oinarritzen dela dio testuak: inmigrazioari erantzun egokia emateko, jaiotze tasa eskasean, gure hizkuntzaren egoera negargarrian, enplegu politika desegokian, emakumearen diskriminazioan, euskaldunok jasandako errepresio politikoan (fisiko eta judiziala), atzerrian bizi diren euskaldunokin gaur ia ezinezkoa zaizkigun harremanak mantentzeko eta abarretan.

Baina horiek ez dira nazio bat definitzen duten puntuak, horiek Estatu baten antolakuntzaren elementuak dira. Beraz, euskaldunok behar duguna Estatu bat da, horrek emango baitigu ditugun arazoak konpontzeko lanabesak, baina ez dugu zertan berri bat eraiki, guk Estatu bat badugulako, espainolek eta frantsesek armen bidez menperatu, zaitu, bere historia manipulatu eta politikoki desaktibatu dutena: Nabarra Estatua, Euskal Estatu okupatua.

Gurea bezalako nazio batek, menperatuen konplexu eta akats guztiak ditu: gure menperatzaileek euren egokitasunera moldatutako historian sinestea, euren interesen joko politikoan, euren mugetan eta euren araudiarekin parte hartzearen etengabeko frustrazioa eta, luzera, kultura menperatuaren ordezkapena menperatzailearena "ontzat" eta

“naturalizat” hartuz (prozesu horretan gaude), gure kasuan euskararen etorkizun ezan sustatzen dena. Zailagoa da menpe bizi den nazio bat askatzea librea den bat menperatzea baino. Estatu propio barik gure identitatea galdua da, hizkuntza barne.

Penagarria da Nazio Eraikuntzarako Biltzarrean menperatzaileek desbistatzeko beti sartzen diguten eztabaidan jaustea, adibidez honako hau esaten denean: “Arazo handiak daude euskal herritar nor den edo izan litekeen erabakitzeko. Herritartasuna ikuspuntu bat baino gehiagotik osa daiteke. Batzuentzat, kultura ezaugarri jakin batzuk betetzen dituztenak dira euskal herritar: euskaraz egitea, esate baterako; beste batzuek jatorriari begiratzen diote: norbera eta norberaren arbasoak Euskal Herrian jaioak izatea; beste batzuek lurraldetasunari soilik: Euskal Herrian bizitzea; eta abar.”. Estatuak duten herriek ez dute “indefinizio” arazo hau, lege bat jartzen dute eta betetzen dutenak dira herritarrak beste oro ez.

Andorran, esate baterako, 25 urte ondoren lortzen da hiritartasuna; Suitzan, etapa ezberdinetan lortzen dira bozkatzeko eskubideak, lehenengo auzoko arazoetan parte hartzekoak, gero udalerrikoak, gero kantoizkoak eta azkenean nazionalak; Espainian eta Frantzian ere epe eta baldintza batzuk daude, momentu politikoaren eta interesen arabera aldatzen direnak.

Estatu menperatuek eta estaturik gabeko nazioek bakarrik dugu subjektu politikoa nor den definitzeko arazoa oso erraza danean: Estatuak berreskuratzearen aldekoak, besteak, Estatuak berreraikitzean izango dira subjektu politikoak, ordurako hiritarrak, guk ezarritako legeak betetzen dituztenak behintzat, beste Estatuetan bezala.

Eraikiko dugun Estatuak zelakoa izango den ere ez da orain egin beharreko eztabaida, behin lortuz gero, euskal gizarteak nahi duen bezalakoa izango da, ez hobeagoa ez txarragoa, ez eskumakoena ez ezkerrekoena, gurea baizik, euskaldun denona. Orain Estatuaren antolakuntza eztabaidatzea guztiz kaltegarria da: indarren sakabanaketa suposatzen baitu gure kalterako eta menperatzaileen barrerako, ez du inongo zentzu praktikorik, aske ez den herri batek ezin baitu bere eraikuntza libreki eztabaidatu, hedabide guztiak, baliabide guztiak, politika guztia, dena, menperatzaileen esku, bere onurarako blaituta eta ongarritua dagoelako. Bide horretan ere hasi dira menperatzaileak beldurra sartu nahirik (horren beharrik ez dutenean, zoritzarrez), aske den herri baten ekonomia menperatzaileen esku eta euren interesetara behartua dagoen batena baino okerrago joango dela esanez, munduko tontoenak ere sinistu ezinezkoa, analisi gehiagoren beharrik ez duena baina egin daitekeena zientzia fikziozko teoria ekonomikoan edo manipulazioan, existitzen diren ekonomien etorkizuna inork ez dakienean, azken finean, edozein ekonomia gizartearen adaptazio gaitasunera baldintzatua dagoenean eta hori aurreikusi ezinezko parametroa da.

Batek pentsa dezake Estatuaren garaia iragan dela, baina errealitatea oso burugogorra da, Europa Batasuna Estatuena da: Estatuaren ministroak batzen dira, Estatuaren daude hauteskundeak, Estatuaren hautagaiak doaz Bruselara, Estatuaren hizkuntzak dira onartzen direnak bilkuretan, Estatuaren bat da dirua gero eurak banatu dezaten, Estatu berriak onartzen

dira. Estatua egoera berrira moldatu da eta indarberrituz: bere etorkizuna ziurtatu nahi du beste Estatuekin elkar lan eginez.

Euskaldunok ez dugu nazio eztabaidarik behar, horretan ez dugu zalantzarik eta, Euskal Herria da gure berreraikitzeke estrategia: Estatua Berreraikitzeke Foro Nazionala.